



Otsailaren 16ko 113/2009 FORU AGINDUA, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko araubatzuk bateratu eta egunean jartzen dituen.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Eranskinak kontsultatzeko jo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera

1. artikulua. Fabrikazio zerga berezien likidazioa eta ordainketa.....	2
2. artikulua. Eragiketen aitortpenak aurkeztea.....	6
3. artikulua. Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak.....	7
4. artikulua. Marka fiskalak.....	9
5. artikulua. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzeko baimena eskatu eta ematea.....	9
6. artikulua. Zirkulazioan izandako gorabeheren orria.(edukirik gabe).....	10
7. artikulua. Agiri laguntzaileen zerrendak.....	10
8. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktu bihurterrazak jasotzen dituztenen urteko zerrenda.....	11
9. artikulua. Aitorpen eta komunikazio batzuen aurkezpen telematikoa.....	11
10. artikulua. Aurretiazko komunikazioa fabrikazio zerga bereziei lotutako hainbat produkturen zirkulazioan. (edukirik gabe).....	12
11. artikulua. Fabrikazio zerga berezien kudeaketan erabil-tzen diren bestelako aitortpen eta agiriak aurkeztea.....	12
12. artikulua. Alkoholaren desnaturalizagarriak.....	16
13. artikulua. Tasa murriztua aplikatzeko hidrokarburu jakin batzuek eraman behar dituzten trazatzaile eta markatzaileak onartzea.....	17
14. artikulua. Zenbait hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga. Autolikidazioa eta horniketa salbuetsien zerrenda.....	18
15. artikulua. (Ezabatua).....	18
16. artikulua. 521 ereduaren onarpena —Entregatutako lehengaien hiruhilabeteko zerrenda— eta hori aurkezteko epearen eta prozeduren zehaztapena.....	18
17. artikulua. Azken kontsumitzailearen aitortpen eredu.....	19
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. PDF BETEGARRI BIDEZKO AURKEZPEN	
ELEKTRONIKOA.....	19
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.....	21
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	25
AMAIERAKO XEDAPENA.....	27

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan ezartzen duenez, Zerga Bereziak itundutako tributuko dira, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen



edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorten eta ordainketa ereduak onartzeko ahalmena izango dute, eta likidazio aldi bakoitza ordaintzeko epeak ere zehaztu ahal izango dituzte. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan beharko dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Ahalmen horren babesean, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua onartu zen, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duena. Xedapen horretan sarritan aipatzen da ereduak onartu beharko direla formaltasun jakin batzuk betetzea ahalbidetuko duten aitorten edo komunikazioak egiteko, eta xedapenean bertan araututa dauden zergak ordaintzeko.

20/1998 Foru Dekretua onartu zenetik, eta obligazio horiek betetzea ahalbidetzeko, foru aginduak argitaratu dira autolikidazio, aitorten edo komunikazio ereduekin lotuta, eta horietan guztietan arlo honetako araudia oso sakabanatua egotea izan da ezaugarri komuna.

Aipatu diren obligazioak betetzea errazteko, foru agindu honen xedea da Zerga Berezien alorrean onartuta dauden eredu gehienak xedapen bakarrean onartzea eta, bidez batez, eredu horiek guztiak eguneratzea eta azken urteotako eskarmentuak organo kudea-tzaileen jardunerako ekarri duen hobekuntzara egokitzea.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi baliabide telematikoek ere garrantzi handia izan dutela esparru honetan, zerga obligazio formalak betetzerakoan. Beste zerga batzuetan gertatzen den bezala, zerga berezien eremuan aitorten edo komunikazioen transmisio telematikoa sartu ahal izateak beharrezko egiten du, baita ere, exijitzen diren ereduak aurkezteko prozeduretako batzuk aldatzea, haien konplimendua errazte aldera.

Gauzak horrela, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Fabrikazio zerga berezien likidazioa eta ordainketa.

1.¹ Onarturik geratzen dira fabrikazio zerga berezien zerga zorra zehaztu eta ordaintzeko erabiliko diren autolikidazio ereduak, jarraian aipatzen direnak. Ereduak bina ale dituzte, Administrazioarena eta interesatuarena:

a) (Ezabatua)²

¹ Apartatu hau otsailaren 7ko 131/2013 FORU AGINDUAaren artikulua bakarraren lehenengo ordinaleko bat apartatuak aldatu du. Foru Agindu horrek zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2013/02/20ko GAO).



- b) 561 eredua: Garagardoaren gaineko zerga. Autolikidazioa. II. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- c) 562 eredua: Tarteko produktuen gaineko zerga. Autolikidazioa. III. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- d) 563 eredua: Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Autolikidazioa. IV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- e) (Edukirik gabe)³
- f)⁴ 581 eredua: Hidrokarburoen gaineko zerga. Autolikidazioa. V bis eranskin gisa jasotzen da foru agindu honetan. Eredua 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako likidazio aldietarako erabiliko da.
- 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako likidazio aldietarako, V ter eranskina aplikatuko da.
- g) 566 eredua: Tabako laboreen gaineko zerga. Autolikidazioa. VI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- h) KUBA eredua. Alkoholaren eta Edari Deribatuen, Tabako Laboreen eta Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziak. Kuota bateratuak banakatzeko aitorpena. VII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- i) (Edukirik gabe)⁵
- j) (Edukirik gabe)⁶

² Letra hau urtarrilaren 22ko 15/2015 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak ezabatu du. Aipatutako foru aginduak «Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa» izeneko 560 eredua onartu, eta hura nola eta zein epetan aurkeztu ezartzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/01/28ko GAO).

³ Letra hau martxoaren 18ko 165/2019 Foru Aginduaren 1. artikuluko bat apartatuak edukirik gabe utzi du. Foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2019/03/28ko GAO).

⁴ Letra hau martxoaren 18ko 165/2019 Foru Aginduaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2019/03/28ko GAO).

⁵ Letra hau martxoaren 18ko 165/2019 Foru Aginduaren 1. artikuluko hiru apartatuak edukirik gabe utzi du. Foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2019/03/28ko GAO).

⁶ Letra hau martxoaren 18ko 165/2019 Foru Aginduaren 1. artikuluko lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta



Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek eta zerga horiek ordaintzera behartuta dauden gainerako zergapekoek aurkeztu behar dituzte eredu hauek, bi kasutan izan ezik: Inportazioak egiten dituztenean eta martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 39/1992 Legea egokitzen duenak (20/1998 Foru Dekretua aurrerantzean) 20.6 artikuluan definitutako artisau destilatzaileak direnean. 582 eredu berrigorle direnek baino ez dute aurkeztu behar. Izaera hori izango dute zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 1.13 artikuluan jasotako definizioan sartzen direnean.

Oro har, fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzen dituen establezimendu edo harrera leku bakoitzak aurkeztu behar ditu ereduak eta kuota likidoak aldi berean ordaindu, likidatzen den epealdian egindako eragiketengatik.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak aurrez baimendu badie, enpresek jardueren aitorten-likidazio bakarra aurkeztu dezakete, zerga bakoitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Hidrokarburoen gaineko Zergaren kasuan izan ezik.

Kuota bateratuak banakatzeko aitortenak –KUBA eta KBBA ereduak– zerga bakoitza ordaintzeko ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan. Eredu horiekin batera, autolikidazio bateratuaren kopia bat eta egindako eragiketen aitortenak ere aurkeztuko dira, banakatu beharreko kuoten fabrikazio zerga berezia zein den adierazita.

Likidatzen den epealdian ez bada izan fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuen izakinik edo mugimendurik, ez da beharrezkoa izango autolikidaziorik aurkeztea. Orobat, ez da horrelakorik aurkeztu beharko Elektrizitatearen gaineko Zergaren likidazio-aldiak zero kuota duenean.

582 ereduaren kasuan, ez da autolikidaziorik aurkeztu beharko baldin eta likidatzen den epealdian ez bada inolako berrigorpenik egin beste lurralde historiko batera edo beste autonomia erkidego batera.

Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboak batasunaren gainerako lurralde eremutik iritsitako produktuak jaso edo emateagatik bakarrik baldin badira zergaren subjektu pasiboak, ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko produkturik jaso edo eman ez duten likidazio-aldietan.

Likidazio-aldi batean fabrikazio zerga berezien karga tasa desberdinak aplikatu direnean, karga tasak aplikatu diren epealdi bakoitzeko aurkeztu behar da autolikidazioa eta bakoitzagatik bidezko kuotak ordaindu.

2. Ereduak paperean nahiz bide telematikoz aurkez daitezke.

egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2019/03/28ko GAO).



3.7 Aitorpenak telematikoki aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo behar da (<https://www.gfaegoitza.net>), zehazki Gipuzkoataria atalera (Tramiteak eta zerbitzuak Internet bidez).

Horretarako, aplikagarria izango da Zerga arloko hainbat tramite bide elektronikoz egiteko betebeharrari buruzko azaroaren 24ko 1.011/2010 Foru Aginduak nortasuna eta aitorpenen aurkezpenerako gainerako baldintzak frogatzeko moduari dagokionez jasotzen duena.

4.⁸ Establezimendu edo harrera leku bakoitzak honako likidazio-aldiak eta honako epeak izango ditu autolikidazioak aurkezteko eta, hala bada, horrekin batera dagozkien kuotak ordaintzeko:

a) Hidrokarburoen eta tabako laboreen gaineko zergak. Likidazio-aldia: Hilabete natural bat.

Epea: Sortzapenak gertatu diren hilabetea amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

582 eredia sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar da.

b) Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga.

Likidazio-aldia: Hiruhileko natural bat, non eta subjektu pasiboek, dela eragiketa kopuruaren arabera aitortzen dutelako, dela zergaren araudiak aurreikusten dituen bestelako zirkunstantziak gertatzen direlako, ez duten Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilean likidatzen. Horrelakoetan, hilekoa ere izango da zerga horien likidazio-aldia.

Epea: Likidazio-aldia hiruhilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo bigarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak. Likidazio-aldia hilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo hirugarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak.

c) (Ezabatua)⁹

⁷ Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

⁸ Apartatu hau otsailaren 7ko 131/2013 FORU AGINDUAren artikuluko bakarraren lehenengo ordinaleko bat apartatuak aldatu du. Foru Agindu horrek zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2013/02/20ko GAO).

⁹ Letra hau urtarrilaren 22ko 15/2015 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak ezabatu du. Aipatutako foru aginduak «Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa» izeneko 560 eredia onartu, eta hura nola eta zein epetan aurkeztu ezartzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/01/28ko GAO).



5. Autolikidazioak paperean aurkezten badira, ateratzen den kuota ordaintzeko Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bilketan laguntzeko baimendutako entitateetara joan beharko da.

6. Bide telematikoz aurkezten diren autolikidazioak helbideratze bankariorz ordainduko dira autolikidazioetan horretarako adierazitako kontuan.

7. Bide telematikoz aurkeztutako autolikidazioak bide telematikoz bakarrik aldatu, zuzendu edo deuseztatu ahal izango dira, betiere aurreko 3. apartatuan aipatu den epea amaitu aurretik aurkeztu badira.

2. artikulua. Eragiketen aitorpenak aurkeztea.

1.¹⁰ Autolikidazioak osatze aldera, eta aurreko artikuluko 4. apartatuan diru sarrera egiteko aipatu den epearen barruan, subjektu pasiboak behartuta daude egindako eragiketak jasotzen dituzten aitorpenak aurkeztera, baita izakinak bakarrik daudenean ere, foru agindu honetan onartzen diren ereduak jarraituta. Honako hauek ez dute eragiketen aitorpenik aurkeztu beharko: Berrigorle gisa jarduten duten subjektu pasiboak, betiere izaera hori badute zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 1.13 artikuluan jasotako definizioaren arabera, eta zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak 8. artikulua 3. apartatuko lehen paragrafoan ezarritakoa aintzat hartuta, zergadunaren ordezkoko gisa jarduten duten subjektu pasiboak.¹¹

Aurrekoa hala izanik ere, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergan aplikatzen den zerga tasa zero den bitartean, zergari atxikitako produktuak fabrikatzen dituztenek eta produktu horien gordailu fiskalen titularrek urtaril, apiril, uztail eta urriaren lehen hogeita bost egunen barruan aurkeztu behar dute, bulego kudeatzailean, eragiketen aitorpena, eta bertan aurreko hiruhileko naturalean establezimenduan izandako mugimenduak adierazi.

2. Jarraian onartzen dira eragiketak aitortzeko erabiliko diren ereduak, bina ale izango dituztenak, Administrazioarena eta interesatuarena:

a) 510 ereduak: Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasuneko beste estatuetatik jasotako eragiketen aitorpena. IX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

¹⁰ Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikuluko bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

¹¹ Apartatu hau otsailaren 7ko 131/2013 FORU AGINDUAren artikuluko bakarren lehenengo ordinaleko bi apartatuak aldatu du. Foru Agindu horrek zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2013/02/20ko GAO).



b) 553 eredia. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga. Ardo eta edari hartzituen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. X. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

c) 554 eredia. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Alkohol fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

d) 555 eredia. Tarteko produktuen gaineko zerga. Tarteko produktuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

e) 557 eredia. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Edari deribatuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

f) 558 eredia. Garagardoaren gaineko zerga. Garagardo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

g) 570 eredia. Hidrokarburoen gaineko zerga. Hidrokar-buroen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

h) 580 eredia. Tabako laboreen gaineko zerga. Tabako laboreen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. XVI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

3.¹² Eragiketen 510 aitorten eredia hartzaile erregistratuek, noizbehinkako hartzaile erregistratuek, igorpen bermatuen jasotzaile baimenduek eta ordezkari fiskalek baino ez dute aurkeztu behar, eta bertan Europar Batasuneko beste estatu batzuetatik iritsitako produktuen harrerak eta emateak bakarrik adieraziko dira.

4.¹³ Artikulu honen 2. apartatuan jasotako eredu guztiak Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuko bulegoetan aurkeztu daitezke paperean edo, bestela, telematikoki foru agindu honek 1. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren arabera.

3. artikulua. Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak.

¹² Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

¹³ Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).



1. Zerga berezien erregelamenduak 7.1, 8.5, 9.4, 10.4, 54.5, 57.4, 80.d), 109.4, eta 111.5 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ereduak onartu dira, fabrikazio zerga berezietan ordaindutako kuoten itzulketa eskatzeko erabiltzekoak:

a) 506 eredua. Fabrikazio zerga bereziak. Produktuak gordailu fiskalean sartzeagatik itzultzeko eskaera. XVII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

b) 507 eredua. Fabrikazio zerga bereziak. Igorpen bermatuen sisteman itzultzeko eskaera. XVIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

c) 508 eredua. Fabrikazio zerga bereziak. Urrutiko salmenten sisteman itzultzeko eskaera. XIX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

d) 524 eredua. Alkoholaren eta edari alkoholunen gaineko zerga bereziak. Itzulketa eskaera. XX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

f) 572 eredua. Hidrokarburoen gaineko zerga. Itzulketa eskaera. XXI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

g) 590 eredua. Fabrikazio zerga bereziak. Produktuak esportatu edo igorri ondorengo itzulketa eskaera. XXII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Aipatutako ereduak bina ale izango dituzte: Administra-zioaren alea eta interesatuarena. 590 ereduak badu hirugarren ale bat, Esportazio/Bidalketa Aduanarena hain zuzen.

2. Ondoko kasu eta epeetan aurkeztu behar dira itzulketa eskaerak:

a) 506 eredua zerga berezien erregelamenduak 8. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa da, gordailu fiskalera sartutako produktuak beste estatu kide batean helmugara iritsi diren hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.

b) 507 eredua zerga berezien erregelamenduak 9. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa izango da, igorpen bermatuen sisteman bidalitako produktuen zerga berezia helmugako estatu kidean ordaindu edo kontabilitate kargua egin den hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.

c) 508 eredua zerga berezien erregelamenduak 10. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa izango da, urrutiko salmenten sisteman bidalitako produktuen zerga berezia helmugako estatu kidean ordaindu edo kontabilitate kargua egin den hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.

d) 524 eredua zerga berezien erregelamenduak 54. eta 80. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Alkoholari edo edari alkoholunei 20/1008 Foru Dekretuaren 22.a) eta b) artikuluan eta 43. artikuluan aurreikusitako erabilerak eman zaizkien unetik aurrera eskaera aurkeztu ahal izango da.



e) 572 eredia zerga berezien erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 109. eta 111. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Hidrokarburoen gaineko zergari atxikitako produktuei 20/1008 Foru Dekretuaren 52.a) eta c) artikuluan aurreikusitako erabilerak eman zaizkien unetik aurrera eskaera aurkeztu ahal izango da.

f)¹⁴ 590 eredia aurkeztu behar da zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 7. eta 57.4 artikuluetan aipatzen dituen kasuetan. Merkantziak esportatzeko tramitearen aduanako agiria aurkeztu eta berehala aurkeztu behar da eskaera.

3.¹⁵ Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak, artikulua honetan onartzen diren ereduaren arabekoak, paperean edo telematikoki aurkeztu daitezke artikulua honetako 2. apartatuan aipatutako epeen barruan. Paperezko eredia Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da. Eredu telematikoa, aldiz, foru agindu honek 1. artikulua 3. apartatuan jasotakoaren arabera aurkeztuko da.

4. artikulua. Marka fiskalak.¹⁶

5. artikulua. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzeko baimena eskatu eta ematea.

1. Honako ereduak onartzen dira zerga berezien erregelamenduak 31.A)⁶ eta 33.2 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako:¹⁷

a) 504 eredia. Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik produktuak jasotzeko baimen eskaera. XXIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

¹⁴ Lata hau otsailaren 7ko 131/2013 FORU AGINDUAren artikulua bakarraren lehenengo ordinaletako hiru apartatuak aldatu du. Foru Agindu horrek zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2013/02/20ko GAO).

¹⁵ Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko laugarren apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

¹⁶ Artikulu hau urtarrilaren 22ko 5/2020 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak indargabetu du. Aipatutako Foru Aginduak alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredia eta hura aurkezteko modua onartzen ditu. Foru agindu Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

¹⁷ Paragrafo hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUAren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).



b) 505 ereduak. Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik produktuak jasotzeko baimena. XXV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

2. Fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik jasotzeko, interesatuek baimena eskatu behar dute.

3.¹⁸ 504 ereduko eskaera Administrazioaren aleaz eta interesatuarenaz osatuta dago, eta paperean aurkeztu daiteke. Eredu hori Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuko bulegoetan aurkeztuko da, produktuen helmugako tokia Gipuzkoa denean, noizbehinkako hartzaile erregistratuen edo igorpen bermatuen jasotzaile baimenduen kasuan edo, bestela, ordezkari fiskalaren zerga helbidea lurralde horretan kokatuta dagoenean, urrutiko salmenten kasuan. Behin agiriari oniritzia emanda, aipatutako zerbitzuak alea itzuliko dio interesatuari.

4. 505 ereduak, produktuak jasotzeko baimenari dagokionak, hiru ale ditu, Administrazioarena, interesatuarena, eta beste estatu kide bateko hornitzailearena. Baimena Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak emango du, paperezko euskarrian, eta interesatuak bi ale jasoko ditu, berari zuzendutakoa eta beste estatu kideko hornitzaileari dagokiona.

6. artikulua. Zirkulazioan izandako gorabeheren orria.¹⁹(edukirik gabe)

7. artikulua. Agiri laguntzaileen zerrendak.²⁰

1. Zerga berezien erregelamenduak 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, onarturik geratzen da 551 ereduak, "Fabrikazio Zerga Bereziak. Hilean luzatutako agiri laguntzaile erraztuen zerrenda" izenekoa, foru agindu honetan XXVI. eranskin gisa ageri dena.

2. 551 ereduak bertan aipatzen diren igorpenak egin ondorengo hilabetearen barruan aurkeztuko da.

¹⁸ Apartatu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUaren artikuluko bakarreko bosgarren apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

¹⁹ Artikulu hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUaren 1. artikuluko bi apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).

²⁰ Artikulu hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUaren 1. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).



8. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktu bihurterrazak jasotzen dituztenen urteko zerrenda.

1. Zerga berezien erregelamenduak 116bis.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, onartu egiten da 512 eredu, «Hidrokarburoen gaineko Zerga. Bigarren tarifako produktuak jaso dituztenen urteko zerrenda» deiturikoa, foru agindu honetan XXXI. eranskin gisa ageri dena. Fabrika, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek aurkeztu behar dute eredu hau, betiere aurreko urtean hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktu bihurterrazak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean bidali badizkiote hartzailearen bati 20/1998 Foru Dekretuaren 51.1 artikuluan jasotako salbuespena aplikatuta. Hartzaileen datuak eta haietako bakoitzari bidalitako produktu kantitatea adierazi behar dira zerrenda horretan.
2. Urteko zerrenda establezimendu igorle bakoitzak bete behar du, eta bakar-bakarrik aurreko urtean produktuak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean jaso dituzten hartzaileak daudenean aurkeztu edo igorri behar dute.
3. Paperezko euskarrian aurkeztu behar da urteko zerrenda, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan, hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren barruan. Bi ale aurkeztuko dira, kopia bat Administrazioarentzat eta bestea interesatuarentzat. Interesatuaren kopia bisatua izan ondoren, aurkezleari itzuliko zaio.

9. artikulua. Aitorpen eta komunikazio batzuen aurkezpen telematikoa.²¹

1. Hona hemen bide telematikoz aurkeztu ahal izango diren zerga aitortenak eta agiriak:
 - a)(Indargabetua).²²
 - b) Agiri laguntzaile erraztu administratibo eta komertzialak.
 - c) (Indargabetua).²³

²¹ Artikulu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAREN artikulua bakarreko zortzigarren apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

²² Letra hau ekainaren 25eko 324/2019 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak indargabetu du. Aipatutako foru aginduak Zerga Berezien Erregelamenduko 27., 101. eta 110. Artikuluetan xedatutakoa garatzeko arauak onartzen ditu (2019/07/01eko GAO). Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko uztailaren 1etik aurrera egiten diren igorpen eta hornidurei aplikatuko zaie.

²³ Letra hau ekainaren 25eko 324/2019 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak indargabetu du. Aipatutako foru aginduak Zerga Berezien Erregelamenduko 27., 101. eta 110. Artikuluetan xedatutakoa garatzeko arauak onartzen ditu (2019/07/01eko GAO). Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2019ko uztailaren 1etik aurrera egiten diren igorpen eta hornidurei aplikatuko zaie.



2. Horretarako, agiri horiek aurkeztera behartutako zergapekoek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko web gunera jo behar dute (<https://www.gipuzkoa.net/ogasuna>), eta horren barruan fabrikazio zerga berezien laguntza programaren atalean sartu.

Behin laguntza programan exijitutako datuak beteta, bertan emandako jarraibideak bete behar dira, eta aitorpena programa beraren bitartez bidaliko dute.

10. artikulua. Aurretiatzko komunikazioa fabrikazio zerga bereziei lotutako hainbat produkturen zirkulazioan.²⁴ (edukirik gabe)

11. artikulua. Fabrikazio zerga berezien kudeaketan erabil-tzen diren bestelako aitorten eta agiriak aurkeztea.

1. Zerga berezien erregelamenduak alkoholaren fabrikazioari dagokionez 82. eta 83. artikuluetan ezarritako informazio obligazioak bete ahal izan daitezten, honako ereduak onartu dira:

a) 518 eredua –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan aitorpena–. XXXII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

b) 519 eredua –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan jardunaren gorabehera orria–. XXXIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

c) 520 eredua –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan jardunaren emai-tza orria–. XXXIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Eredu horiek hiruna ale dituzte:

— Zeharkako Zergen Zerbitzuaren alea.

— Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren alea.

— Fabrikatzailearen alea.

2. 518 eredua Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariorde-tzari aurkeztu behar zaio, bide hauetako bat dela medio:

a) Zuzenean emanenez, eragiketa hasi baino gutxienez hogeita lau ordu lehenago.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta beretzat beste ale bat gorde behar du, berari

²⁴ Artikulu hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUAren 1. artikuluko lau apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).



dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

b) Posta ziurtatu bidez, eragiketa hasi baino gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago.

Fabrikatzaileak posta ziurtatu bidez bidali behar ditu Ikuskaritzako Zuzendariordetzara eta Zeharkako Zergen Zerbitzura bakoitzari dagokion alea, eta bere alea eta gutun ziurtatuaren frogagiria beretzat gorde behar ditu. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari honi dagokion alea. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren eragiketak hasi aurretik egin daiteke bisitaldia, baina aitortenaren inguruan egin beharreko egiaztapenak baztertu gabe-, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, fabrikatzailearen eta Zuzendariordetza-ren aleak bideratuko ditu, eta gorabeheraren bat gertatu bada, dagokion alearen kopia bidaliko dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

c) Telefaxeaz bidaliz, eragiketa hasi baino gutxienez hogeita lau ordu lehenago.

Aurkezpen sistema hau Ikuskaritzako Zuzendariordetzak aldeztu aurretik onartu behar du establezimendu bakoitzerako.

Fabrikatzaileak fabrikatzailearen alea bidali behar dio telefaxeaz Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta beretzat aitortenaren gainerako aleak eta egindako transmisioaren frogagiria gorde. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean, bidalitako alearen fotokopia bat bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren –eragiketak hasi aurretik egin daiteke bisitaldia, baina aitortenaren inguruan egin beharreko egiaztapenak baztertu gabe-, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, aitortenaren ale guztiak bideratuko ditu, eta dagokion alea emango dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

Era berean, 518 eredu telematikoki aurkeztu daiteke eragiketa hasi baino 24 ordu lehenago, foru agindu honek 1. artikularen 3. apartatuan jasotakoaren arabera.²⁵

3. 519 eredu Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari aurkeztu behar zaio, bide hauetako bat dela medio:

a) Zuzenean emanaz.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta bere-tzat beste ale bat gorde behar du, berari

²⁵ Paragrafo hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko hamargarren apartatuak gehitu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).



dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

b) Telefaxeaz bidaliz.

Aurkezpen sistema hau Ikuskaritzako Zuzendariordetzak aldeztu aurretik onartu behar du establezimendu bakoitzerako.

Fabrikatzaileak fabrikatzailearen alea bidali behar dio telefaxeaz Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta beretzat gorabehera orriaren ale guztiak eta egindako transmisioaren frogagiria gorde. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean, bidalitako alearen fotokopia bat bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren, eta gorabehera orrian jasotako gertakizuna egiaztatzea eragotzi gabe, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, gorabehera orriaren ale guztiak bideratuko ditu, eta dagokion alea emango dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

Era berean, 519 eredu telematikoki aurkeztu daiteke dena delako gorabehera gertatu eta berehala, foru agindu honek 1. artikularen 3. apartatuan jasotakoaren arabera.²⁶

4. 520 eredu Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari aurkeztu behar zaio, eragiketa amaitu eta gehienez ere hogeita lau orduko epean, bide hauetako bat dela medio:

a) Zuzenean emanaz.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta beretzat beste ale bat gorde behar du, berari dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Enpresaren karpeta fiskalean behar bezala lotuta gordeko dira Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren alea, lan aitortpena eta aitortpenarekin lotuta aurkezten diren gorabehera orriak, halakorik bada.

b) Posta ziurtatu bidez bidaliz.

Fabrikatzaileak ale guztiak bidali behar dizkio posta ziurtatu bidez Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta bere alearen kopia eta gutun ziurtatuaren frogagiria beretzat gorde behar ditu. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, dokumentua onartu ondoren, behar bezala bideratuta itzuli behar dio, dela posta ziurtatuaz, dela fabrikara egiten duen lehen bisitaldian, bere alea fabrikatzaileari. Enpresaren karpeta fiskalean behar bezala lotuta gordeko dira Ikuskaritzako

²⁶ Paragrafo hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAREN artikuluko bakarreko hamargarren apartatuak gehitu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).



Zuzendariordetzaren alea, fabrikatzailearen alea bidali izanaren frogagiria, bidalia izan bada, lan aitortpena eta aitortpen horrekin lotuta aurkeztu diren gorabeheren orriak, halakorik dagoenean. Zeharkako Zergen Zerbitzuaren alea gehienez ere hogeita lau orduko epean eman behar zaio zerbitzu horri.

Era berean, 520 eredia telematikoki aurkeztu daiteke jarduera aldia amaitzen den egunean, lan aitortpenean edo, hala badagokio, lan eragiketen gorabehera orrian adierazitakoari jarraituz, foru agindu honek 1. artikulua 3. apartatua jasotakoaren arabera.²⁷

5. Onarturik geratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan inskribatu izana frogatzen duen txartela, foru agindu honetan XXXV. eranskin gisa ageri dena. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan emango da txartela, eta hauek izango dira hartzaileak, betiere erregistroan inskribatu badira: Fabriken, gordailu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrak, operadore erregistratuak produktuak jasotzen dituzten gordailu fiskalei dagokienez, zerga berezien erregelamenduan finkatzen diren xehekako merkatari, erabiltzaile eta amaierako kontsumitzaileak, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresariak, eta zerga ordezkariak.

6. Onarturik geratzen da «Alkohola hornitzeko txartela»ren eredia, foru agindu honetan XXXVI. eranskin gisa ageri dena. Gipuzkoako Foru Aldundiak alkoholaren eta edari deribatuen zergen esparruan eratu duen Erregistroan inskribatu izana frogatzeko balioko du txartelak, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak emango du. Hauek izango dira hartzaileak, betiere erregistroan inskribatu badira: Fabriken, gordailu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrak, operadore erregistratuak produktuak jasotzen dituzten gordailu fiskalei dagokienez, zerga berezien erregelamenduan finkatzen diren xehekako merkatari, erabiltzaile eta amaierako kontsumitzaileak, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresariak, eta zerga ordezkariak.

7.²⁸ Zerga berezien erregelamenduak 45.6. artikuluan ezarritako informazio obligazioa betetzearen ondorioetarako, onarturik geratzen da «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitortpen informatiboa» izeneko 548 eredia, foru agindu honetan XXXVI bis eranskin gisa jasotzen dena.

Fabrikazio zerga berezien gordailuzain baimenduek aurkeztu behar dute 548 eredia, elektrizitatearen gaineko zergan izan ezik. Eredua horretan besteren kontura egindako eragiketak adierazi behar dituzte aitortzaileek.

²⁷ Paragrafo hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUaren artikulua bakarreko hamargarren apartatuak gehitu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

²⁸ Apartatu hau ekainaren 6ko 540/2013 FORU AGINDUaren artikulua bakarreko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru agiduak «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitortpen informatiboa» izeneko 548 eredia onartzen du. Aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2013/06/14ko GAO) argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean, eta 2013ko ekainaren 1etik aurrera egindako eragiketei aplikatzen zaie.



Zergen sortzapena gertatu ondorengo hilabetearen lehen 25 egun naturalen barruan aurkeztu behar dute zergapekoek 548 eredia. Tiltular batek Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuak dituen establezimendu guztiak hartuko ditu aitorpenak.

548 eredia paperean zein bide elektronikoz aurkez daiteke, foru agindu honen 2.4 artikuluan jasotakoaren arabera.

12. artikulua. Alkoholaren desnaturalizagarriak.

1.²⁹ Zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 20. artikuluan eta haien erregelamenduko 73., 74., eta 75. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, alkoholaren honako desnaturalizatzaileak onartzen dira, betiere hari gehitzen bazaizkio jarraian adierazitako eran eta kantitateetan.

2.³⁰ Erabat desnaturalizatutako alkohola. Halakotzat hartuko da 100 litro alkohol purutan gutxienez ondoko sustantziak dituen:

- a) 3 litro alkohol isopropiliko, gehi
- b) 3 litro metiletilzetona, gehi
- c) gramo bat denatonio bentzoato, eta
- d) 0,2 gramo metileno-urdin (Index 52015 kolorea).

3. Partzialki desnaturalizatutako alkohola, erabilera orokorrekoa. Halakotzat hartzen da 100 litro alkohol purutan gutxienez ondoko sustantziak dituen:

- a) Gramo bat denatonio bentzoato, edo
- b) 0,3 litro dietil ftalato gehi 0,2 gramo denatonio bentzoato, edo
- c) 1,25 litro metiletilzetona (2-butanona).

4. Alkohola erabat edo partzialki desnaturalizatuta dagoela jotzen da laginen analisietatik ateratzen diren emaitzak, metodo akatsak barne, aurreko apartatuetan aipatutako balioen %95etik beherakoak ez direnean.

²⁹ Apartatu hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUAren 1. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).

³⁰ Apartatu hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUAren 1. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).



13. artikulua. Tasa murriztua aplikatzeko hidrokarbuero jakin batzuek eraman behar dituzten trazatzaile eta markatzaileak onartzea.

1. Honako markatzaile eta trazatzaileak onartzen dira 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluaaren 1.4 epigrafean gasoliorako ezartzen duen tasa murriztua aplikatzeko:

a) Gasolioak ondorengo gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar ditu 1.000.000 litroko:

a') Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b') Koloragarri gorria, gasolioari 0,40tik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 525 eta 550 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argipasoa duten kubetetan.

b) Gasolioak ondorengo gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar ditu 1.000.000 litroko:

a') Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b') Koloragarri urdina, gasolioari 0,50etik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 640 eta 660 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argipasoa duten kubetetan.»

c) 1. apartatua aipatu diren gehigarri eta trazatzaileek B gasolioaren zehaztapen teknikoak osatuko dituzte, eta 2. apartatukoek, berriz, C gasolioarenak.

2. 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluaaren 1. tarifako 1.12 epigrafean eta 2. tarifako 2.10 epigrafean, hurrenez hurren, ezarritako tasa murriztuak aplikatzeko, kerosenoak eta gainerako tarteko olioek honako gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar dituzte 1.000.000 litroko:

a) Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b) Koloragarri urdina, kerosenoari 0,50etik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 640 eta 660 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argipasoa duten kubetetan.

3. B eta C motatako gasolioek aurreko 1. apartatua jasotakoaren arabera derrigorrez eraman behar dituzten gehigarri eta agente trazatzaileez gain, birfindegiak eta hidrokarbueroen gordailu fiskalak baimendurik geratzen dira gasolina eta gasolioetan bestelako gehigarriak ere erabiltzeko baldintza hauek betetzen badira:

a) Gehigarri horiek jasotzen dituzten gasolina eta gasolioek indarrean dagoen araudian ezarritako zehaztapenak bete behar dituzte.



b) Gehigarri horiek erabiltzeak ez du ezertan ere aldatu behar B eta C motatako gasolioek aurreko 1. apartatuaren arabera eraman behar dituzten gehigarri eta agente trazatzaileen portaera edo horiek antzemateko era.

c) Gehigarri horiek erabiltzea ez da oztopo izango ingurumen alorrean indarrean dauden arauak betetzeko.

14. artikulua. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Autolikidazioa eta horniketa salbuetsien zerrenda.

1. Bi eredu onartu dira: 569 eredua, «Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Autolikidazioa eta horniketa edo autokontsumo salbuetsien zerrenda» izenekoa, eta EBA eredua, «Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Subjektu pasiboak bere eragiketetan erabilitako establezimenduei dagozkien kuotak edo horniketa salbuetsiak establezimenduka banakatzeko aitorpena» deiturikoa. XXXVII. eta XXXVIII. eranskinetan jaso dira foru agindu honetan. Paperean nahiz telematikoki (internet bidez) aurkeztu daitezke.

2. Bide telematikoz aurkeztea aukeratzen bada, foru agindu honek 1. artikulua
3. apartatuan jasotakoaren arabera egin behar da, berezitasun hauek kontuan hartuta:³¹

a) «Kuota zentralizatuak banakatzeko aitorpenak» (KUBA eta KBBA ereduak) aipatzen direnean, ain-tzat hartzen ari da «Establezimenduen arabera banakatzeko aitorpena (EBA eredua), aurreko apartatuan onartu dena.

b) Aurkezteko epea: Sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

15. artikulua. (Ezabatua)³²

16. artikulua. 521 ereduaren onarpena —Entregatutako lehengaien hiruhilabeteko zerrenda— eta hori aurkezteko epearen eta prozeduren zehaztapena.³³

³¹ Paragrafo hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAREN artikulua bakarreko hamaikagarren apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).

³² Artikulu hau urtarrilaren 22ko 15/2015 Foru Aginduaren xedapen indargabetzaileak ezabatu du. Aipatutako foru aginduak «Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa» izeneko 560 eredua onartu, eta hura nola eta zein epetan aurkeztu ezartzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2015/01/28ko GAO).

³³ Artikulu hau martxoaren 2ko 225/2011 FORU AGINDUAREN artikulua bakarreko hamairugarren apartatuak aldatu du. Aipatu foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2011/03/08ko GAO).



1. Zerga Berezien Erregelamenduak 89. artikularen 4. eta 5. apartatuetan jasotakoaren ondorioetarako, ardo alkoholaren fabrikaziorako 521 eredia onartzen da (Entregatutako lehengaien hiruhilabeteko zerrenda). Foru agindu honen XL. eranskinean agertzen da.

2. 521 eredia aurkeztera behartua egongo dira ardo alkohola fabrikatzeko lehengai diren produktuak gordailatzen dituztenak. Mahats lapak, piketak eta ardoa egiteko gainerako hondarrak direnean, eredu horretan sartu behar dira, haien helmuga edozein izanik ere.

Era berean, 521 eredia aurkeztera behartuta egongo dira edozein mota edo jatorritako azukre kristalizatuak eta isoglukosa produzitzen dituzten fabrikatzaileak eta melaza biltegizainak, beren fabrika edo biltegietatik izandako melaza edo isoglukosa iteerei dagokienez, horien helmuga edozein izanik ere.

Eredu hori hiruhilabetearen barruan produktuen entregak edo igorpenak egon direnean bakarrik aurkeztu behar da.

3. 521 eredia hiruhilabete natural bakoitza amaitu eta ondorengo lehendabiziko hogeita bost egunen barruan aurkeztu behar da.

4. Paperean edo bide elektronikoz aurkeztu daiteke eredia. Aurkezpen telematikoa aukeratuz gero, foru agindu honek 1. artikularen 3. apartatuan jasotakoaren arabera egin behar da.

17. artikulua. Azken kontsumitzailearen aitorten eredia.³⁴

Zerga Berezien Erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 106.4 artikuluan ezarritako moduan, hidrokarburoen gaineko zergaren esparruan bi aitorten eredu onartzen dira, azken kontsumitzailearenak, zehazki, «azken kontsumitzailearen aitortena –ZBEko 106.4 artikulua–, hornidura bakarra», eta «Azken kontsumitzailearen aitortena –ZBEko 106.4 artikulua–, hainbat hornidura» izenekoak, foru agindu honetan XLI eta XLII eranskin gisa jasotzen direnak hurrenez hurren.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. PDF betegarri bidezko aurkezpen elektronikoa.³⁵

³⁴ Artikulu hau abuztuaren 21eko 415/2018 foru aginduaren artikulua bakarrik gehitu du. Aipatutako foru aginduak gasolio hobariatua azken kontsumitzaileak aurkeztu beharreko aitorten ereduak onartzen ditu. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2018/08/30ko GAO), eta 2018ko irailaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

³⁵ Xedapen gehigarri hau urtarrilaren 22ko 21/2014 FORU AGINDUAREN 1. artikuluko sei apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2014/01/28ko GAO).



Jarraian zerrendatzen diren ereduak elektronikoki aurkeztu daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik, web helbidean sartuta eta «Gipuzkoataria –Tramiteak eta zerbitzuak internet bidez–» ataletik abiatuta, bertan dagoen «PDF» formatu betegarria erabiliz:

506 ereduak –Itzulketa eskaera produktuak gordailu fiskalean sartzeari buruzko ereduak–.

507 ereduak –Itzulketa eskaera igorpen bermatuen sistemari buruzko ereduak–.

508 ereduak –Itzulketa eskaera urrutiko salmenten sistemari buruzko ereduak–.

509 ereduak – Fabrikazio zerga bereziak. Gorabeheren orria–.

510 ereduak –Europar Batasuneko beste estatuetatik jasotako eragiketen aitortpenari buruzko ereduak–.

512 ereduak –Bigarren tarifako produktuen hartzaileen urteko zerrendari buruzko ereduak–.

513 ereduak –Elektrizitatearen gaineko zerga. Jardueraren urteko aitortpenari buruzko ereduak–.

518 ereduak –Lan aitortpena. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergari buruzko ereduak–.

519 ereduak –Lan eragiketarako gorabehera orria. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergari buruzko ereduak–.

520 ereduak –Lan eragiketarako emaitza orria. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergari buruzko ereduak–.

521 ereduak –Entregatutako lehengaien hiruhilabeteko zerrendari buruzko ereduak–.

524 ereduak –Itzulketa eskaera. Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga bereziak–.

548 ereduak – Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitortpen informatiboa.³⁶

551 ereduak – Fabrikazio zerga bereziak. Asteazken zehar luzatutako agiri laguntzaileen zerrenda, erraztuak barne–.

553 ereduak –Ardoaren eta edari hartzen fabriketan eta gordailu fiskalean egindako eragiketen aitortpenari buruzko ereduak–.

554 ereduak –Alkohol fabriketan eta gordailu fiskalean egindako eragiketen aitortpenari buruzko ereduak–.

³⁶ Ereduak hau ekainaren 6ko 540/2013 FORU AGINDUaren artikuluko bakarreko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru agiduak «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitortpen informatiboa» izeneko 548 ereduak onartzen du. Aldaketak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2013/06/14ko GAO) argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean, eta 2013ko ekainaren 1etik aurrera egindako eragiketei aplikatzen zaie.



555 eredua –Fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena. Tarteko produktuen gaineko zerga–.

557 eredua –Edari deribatuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena–.

558 eredua –Garagardo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena–.

570 eredua –Hidrokarburo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena–.

572 eredua –Hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko eskaera–.

580 eredua –Tabako laboreen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitortpena–.

590 eredua –Esportazio edo igorpenagatiko itzulketa eskaera–.

KUBA eredua. Alkoholaren eta edari deribatuen, tabako laboreen eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziak. Kuota bateratuak banakatzeko aitortpena.

KBBA eredua. Hidrokarburoen gaineko zerga. Kuota bateratuak banakatzeko aitortpena.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.³⁷

Otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduak, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketa arau batzuk bateratu eta eguneratzen dituenak, aipatzen dituen 504, 506, 507, 508, 510 eta 570 ereduak betetzeko jarraibideetan jasota dauden epigrafeak eta epigrafe kodeak ondoren datozen hauekin ordeztzen dira:

Fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuen epigrafeak eta epigrafe kodeak, eta haiek adierazteko unitateak:

<i>Leg. art.</i>	<i>Epigrafea</i>	<i>Produktu mota</i>	<i>Epigrafe kodea</i>	<i>Unitatea</i>
<i>Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga bereziak</i>				

³⁷ Xedapen gehigarri hau martxoaren 18ko 165/2019 FORU AGINDUAREN 1. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen du. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2019/03/28ko GAO).



39	–	Alkohola eta edari deribatuak.	A0	HG
23	–	Kanarietan kontsumitzeko alkohola eta edari deribatuak.	A7	HG
34	–	%15etik gorako gradu alkoholiko bolumentriko bereganatua ez duten tarteko produktuak.	I0	HL
34	–	Gainerako tarteko produktuak.	I1	HL
23	–	%15etik gorako gradu alkoholiko bolumentriko bereganatua ez duten tarteko produktuak, Kanarietan kontsumitzekoak.	I8	HL
23	–	Kanarietan kontsumitzeko gainerako tarteko produktuak.	I9	HL
26.1	1.a	%1,2tik gorako gradu alkoholiko bolumentriko bereganatua ez duten garagardoak	G0	HL
26.1	1.b	Gradu alkoholiko bolumentriko bereganatua %1,2 baino handiagoa eta %2,8tik gorakoa ez duten garagardoak.	G1	HL
26.1	2	Gradu alkoholiko bolumentriko bereganatua %2,8 baino handiagoa eta Plato gradua 11tik beherakoa duten garagardoak.	A3	HL
26.1	3	11 eta 15 bitarteko plato gradua duten garagardoak.	A4	HL
26.1	4	15 eta 19 bitarteko plato gradua duten garagardoak.	A5	HL
26.1	5	19tik gorako plato gradua duten garagardoak.	A6	HL
30	1	Ardo bareak.	V0	HL
30	2	Ardo apartsuak.	V1	HL
30	3	Edari hartzitu bareak.	V2	HL
30	4	Edari hartzitu apartsuak.	V3	HL
<i>Hidrokarburoen gaineko zerga</i>				
50.1	1.1	Gasolina berundunak.	B0	KL
50.1	1.2.1	Berunik gabeko gasolinak, 98 oktano edo gehiagokoak.	H0	KL
50.1	1.2.2	Berunik gabeko gainerako gasolinak.	H1	KL
50.1	1.3	Erabilera orokorrerako gasolioak.	B2	KL
50.1	1.4	Tasa murriztua duten gasolioak.	B3	KL
50.1	1.5	Fuelolioak	B4	TN
50.1	1.6	Erabilera orokorrerako petrolio-gas likidotua (PGL).	B5	TN
50.1	1.8	Karburanteaz besteko erabilerarako PGLa.	B7	TN



50.1	1.9	Erabilera orokorrerako gas naturala.	B8	GJ
50.1	1.10	Karburanteaz besteko erabilerarako gas naturala.	B9	GJ
50.1	1.19	Helburu profesionaletarako gas naturala.	H4	GJ
50.1	1.11	Erabilera orokorrerako kerosenoa.	C0	KL
50.1	1.12	Karburanteaz besteko erabilerarako kerosenoa.	C1	KL
50.1	1.13	Karburante gisa erabiltzeko bioetanola eta biometanola.	E1	KL
50.1	1.14	Karburante gisa erabiltzeko biodiesela.	E2	KL
50.1	1.15	Erregai gisa erabiltzeko biodiesela eta biometanola.	E3	KL
50.1	1.18	1.2.1 epigrafearekin nahasita karburante gisa erabiltzen den bioetanola/biometanola.	E4	KL
50.1	2.1	Harrikatz-mundruna.	C2	TN
50.1	2.2	Bentzolak, toluolak eta xilolak.	C3	KL
50.1	2.3	Kreosota olioak.	C4	TN
50.1	2.4	Harrikatz mundrunaren distilaziotik lortutako olio gordinak.	C5	TN
50.1	2.5	Gas naturalaren olio gordin kondentsatuak, erabilera orokorrekoak.	C6	KL
50.1	2.6	Gas naturalaren olio gordin kondentsatuak, karburantez besteko erabilera dutenak.	C7	KL
50.1	2.7	Petrolioaren edo mineral bituminosoen gainerako olio gordinak.	C8	TN
50.1	2.8	Gasolina bereziak, gasolina motako karburo-erreaktoreak eta gainerako olio arinak.	C9	KL
50.1	2.9	Kerosenoaz besteko olio ertainak, erabilera orokorrekoak.	D0	KL
50.1	2.10	Kerosenoaz besteko olio ertainak, karburantez besteko erabilera dutenak.	D1	KL
50.1	2.11	2710.19.71, 2710.19.75, 2710.19.81, 2710.19.83, 2710.19.85, 2710.19.87, 2710.19.91, 2710.19.93, 2710.19.99 eta 2710.20.90. bitarteko NK kodeetako olio astunak eta prestakinak.	D2	TN
50.1	2.12	2711.29.00 NK kodeko hidrokarburo gaseosoak eta 2705 NK kodean sailkatutako produktuak, erabilera orokorrekoak.	D3	GJ
50.1	2.13	2711.29.00 NK kodeko hidrokarburo gaseosoak, eta 2705 NK kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, karburantez besteko erabileretarako edo motor finkoetan karburante gisa erabiltzeko bideratuak.	D4	GJ
50.1	2.21	2711.29.00 NK kodeko hidrokarburo gaseosoak, eta 2705 NK kodean sailkatutako produktuak, baita biogasa ere, helburu profesionaletarako	E5	GJ



		bideratuak.		
50.1	2.14	Baselina, parafina eta antzeko produktuak.	D5	TN
50.1	2.15	Asfaltoa edo betun naturala, petrolio betuna edo mundrun minerala edo mundrun naturaleko galipota oinarri duten nahaste bituminosoak.	D6	TN
50.1	2.16	Konposizio kimiko jakineko hidrokarburoak.	D7	KL
50.1	2.17	3403 NK kodean sailkatutako prestakinak.	D8	TN
50.1	2.18	3811 NK kodeko prestakin antidetonatzaileak eta gehigarriak.	D9	KL
50.1	2.19	Alkilbentzenoen nahasteak eta alkilnaftalenoen nahasteak.	E0	TN
50.1	2.20	2710.91.00 eta 2710.99.00 bitarteko NK kodeetan sailkatutako olio hondakinak.	E6	TN
<i>Tabako laboreen gaineko zerga</i>				
60	1	Zigarroak eta zigarrotxoak.	F0	€ pvp
60	2	Zigarretak.	F1	mc y € pvp
60	3	Tabako xehea.	F2	kg y € pvp
60	4	Gainerako tabako laboreak.	F3	€ pvp
60	7	Zigarroak eta zigarrotxoak, gutxieneko tasa orokorrean.	F6	mc
60	5	Zigarretak, gutxieneko tasa orokorrean.	F4	mc
60	6	Tabako xehea, gutxieneko tasa orokorrean.	F5	Kg
60	A	Zigarroak eta zigarrotxoak, gutxieneko tasa gehituan.	FA	mc
60	B	Zigarretak, gutxieneko tasa gehituan.	FB	mc
60	C	Tabako xehea, gutxieneko tasa gehituan.	FC	kg
60	8	Gainerako tabako laboreak, gutxieneko tasan.	F7	kg

HG= hektolitro alkohol puruak.

HL = bolumen errealeko hektolitroak.

KL= mila litroak.

TN= tona metrikoak.



GJ= gigajulioak.

mz= mila zigarretak.

€ psp = publikoarentzako gehieneko salmenta prezioa, eurotan adierazia, Penintsulako eta Balear Uharteetako tabako eta tinbre saltokietan, zerga guztiak barne.

kg = kilogramoak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

1. Foru agindu hau indarrean jartzen denean honako xedapenak indargabetuko dira:

— 640/1997 Foru Agindua, abuztuaren 20koa, Fabrikazio Zerga Bereziak autolikidatzeko ereduak ezarri eta beren zenbatekoa kalkulatu eta ordaintzeko aurkezpen epeak, modua eta tokiak onartzen dituenak.

— 750/1997 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, eragiketarako aitortzeko erabili beharreko 510, 553, 554, 557, 558, 570, 580 eta E-55 ereduak eta astean zehar luzatu nahiz jasotako agiri laguntzaileak zerrendatzeko 501 eta 502 ereduak, horiek guztiak Fabrikazio Zerga Berezienak, onartzen dituenak.

— 1.040/1997 Foru Agindua, abenduaren 17koa, fabrikazio zerga bereziei dagozkien 504, 505, 509, 511, 517, 524, 572 ereduak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan izena emateko txartelak onartzen dituenak.

— 1.037/1998 Foru Agindua, abenduaren 3koa, fabrikazio zergei dagokienez 518, 519, 520, 555 eta 556 aitorten ereduak eta 506, 507, 508 eta 590 itzulketa ereduak onartzen dituenak.

— 531/2000 Foru Agindua, uztailaren 11koa, luzatutako agiri laguntzaileen eta batasun barruko trafikoan jasotako agiri laguntzaileen laburpen zerrendei buruzko eredu berriak (bi kasuetan, agiri erraztuak barne) eta euskarri magnetikoak onartzen dituenak.

— 1.165/2001 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa, zerga bereziei dagozkien 504, 505, 506, 507, 508, 510, 524, 551, 552, 572 eta 580 ereduak, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga egintza juridiko dokumentatuen barruko merkataritza agirien modalitatean aitortu eta likidatzeko 30A ereduak onartzen dituenak. Bi artikulua ez dira indargabetzen foru agindu honetan: Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aitortzeko 30A ereduak onartzen dituenak (13. artikulua) eta eredu hori aurkezteko epe eta tokiak ezartzen dituenak (14. artikulua).

— 1.218/2001 Foru Agindua, abenduaren 3koa, euroa moneta-sistema nazionalerako moneta bakar gisa hasten denetik aurrera erabili beharreko zerga ereduak finkatzen dituenak, honako eredu hauei dagokienez: 500/503, 509, 517,



518, 519, 520, 553, 554, 555, 556, 557, 558, 5960, 561, 562, 563, 564, 566, 570 eta 590.

— 1.329/2001 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, zerga berezien 511 eredia, bideko salmenten prozeduran tasa murriztuarekin igorritako produktuen emate orrien hileko zerrenda aurkeztekoa, onartzen duena.

— 220/2002 Foru Agindua, martxoaren 11koa, zerga bereziei buruzko zenbait gai arautzen dituena.

— 638/2002 Foru Agindua, ekainaren 24koa, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren aitortpen-likidazioa eta hornikuntza salbuetsien zerrenda aurkezteko erabiliko den 569 eredia onartzen duena.

— 1.313/2003 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako hainbat produkturen batasun barruko zirkulazioan aurretiazko informazioaren sistema ezartzen duena.

— 1.356/2004 Foru Agindua, abenduaren 13koa, ondoko xedapena aldatzen duena: Abuztuaren 27ko 885/2002 Foru Agindua, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzekoan, ezarritako tasa murriztuak aplikatzeko hidrokarburo jakin batzuek eraman behar dituzten trazatzaile eta markatzaileak onartzen dituena.

— 231 bis/2005 Foru Agindua, irailaren 16koa, honako aginduak aldatzekoa: Abuztuaren 20ko 640/1997 Foru Agindua, Fabrikazio Zerga Berezien ereduak onartzen dituena, otsailaren 25eko 157/1998 Foru Agindua, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia aitortzeko 560 eredia onartzen duena, eta azaroaren 21eko 1.165/2001 Foru Agindua, zerga bereziei dagozkien ereduak onartzen dituena.

— 335/2006 Foru Agindua, martxoaren 29koa, likidazio aldi berean zerga tasa desberdinak aplikatzen direnean Fabrikazio Zerga Berezien aitortpenak aurkezteko jarraitu beharreko arauak ezartzen dituena. Ez da indargabetzen 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa.

— 1.090/2006 Foru Agindua, abenduaren 22koa, aitortpen-likidazio batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedurari buruzko otsailaren 25eko 165/2004 Foru Agindua aldatzen duena, 560, 561, 562, 563, 564 eta 566 ereduak dagokienez.

— 1.091/2006 Foru Agindua, abenduaren 22koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitortpen-likidazioa egiteko 390, 391, 392 eredu berriak eta 390 eta 392 eredu eranskin komuna onartzen dituena, eta otsailaren 25eko 157/1998 Foru Agindua, Elektrizitatearen gaineko Zergaren 560 eredia onartzekoa, aldatzen duena, 560 ereduari dagokionez.

2. Indarrik gabe geratzen dira, baita ere, foru agindu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.



AMAIERAKO XEDAPENA.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta data horretatik aurrera hasten diren likidazio aldietan egindako eragiketen autolikidazio eta aitorpenei aplikatuko zaie.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *225/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 2koa, Zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua (2011/03/8ko GAO)*
 - Bere artikuluko bakarrak prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 1. artikuluko 1. apartatuaren seigarren paragrafoa eta 3. apartatua.
 - 1. artikuluko 4. apartatuko azken paragrafoa ezabatzen da.
 - 2. artikuluko 1., 3. eta 4. apartatuak.
 - 3. artikuluko 3. apartatua.
 - 5. artikuluko 3. apartatua.
 - 6., 7. eta 9. artikulukoak.
 - 10. artikuluko 1. apartatuko d) letra eta 2. apartatua.
 - Azken paragrafo bat gehitzen zaie 11. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuei.
 - 14. artikuluko 2. apartatuko lehen paragrafoa.
 - 15. eta 16. artikulukoak eta xedapen gehigarria eransten zaizkio.
- *131/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 7koa, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen duena (2013/02/20ko GAO).*
 - Bere artikuluko bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 1. artikuluko 1. eta 4 apartatuak.
 - 2. artikuluko 1. apartatuko lehenengo paragrafoa.
 - 3. artikuluko 2. apartatuko f) letra.
 - VI. eranskinean, beste testu bat hartu behar da kontuan «Likidazioa» atalaren barruan «Epigrafea» betetzeko



jarraibideetan: «Epigrafea: Azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLIV. eranskineko epigrafeak jarri behar dira».

- *540/2013 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, ««Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorten informatiboa» izeneko 548 eredia onartzen duena (2013/06/14ko GAO).*

Bere artikulu bakarrak 11. artikuluan 7. apartatua gehitzen du, xedaoen gehigarria aldatzen du eta XXVI bis eranskina gehitzen da, «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten aitorten informatiboa» izeneko 548 eredia.

- *21/2014 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa, zerga bereziei dagozkien otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua eta irailaren 25eko 796/2013 Foru Agindua aldatzen disuena (2014/01/28ko GAO).*

- Bere 1. artikulua aldatzeko hauek sartzen ditu:

- 5. artikuluko 1. apartatuaren lehengo paragrafoa.
- 6. artikulua edukirik gabe geratzen da.
- 7. artikulua aldatzen du.
- 10. artikulua edukirik gabe geratzen da.
- 12. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira.
- Xedapen gehigarria aldatu eta lehena bihurtzen da, bigarren bat gehituz.
- I. eranskina aldatzen da.

- *15/2015 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa, «Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa» izeneko 560 eredia onartu, eta hura nola eta zein epetan aurkeztu ezartzen duena (2015/01/28ko GAO).*

- Bere xedapen indargabetzaileak 1. artikuluko 1. apartatuko a) letra eta 4. apartatuko c) letra ezabatzen ditu eta baita 15. artikulua.



- *415/2018 FORU AGINDUA, abuztuaren 21ekoa, gasolio hobariatuaren azken kontsumitzaileak aurkeztu beharreko aitorten ereduak onartzen dituen (2018/08/30ko GAO).*
 - Bere artikuluko bakarrak 17. artikulua gehitzen du.

- *165/2019 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen duena (2019/03/28ko GAO).*
 - Bere 1. artikuluko aldaketa hauek sartzen ditu:
 - 1.1 artikuluko e) letra edukirik gabe uzten du.
 - 1.1 artikuluko f) apartatua aldatzen du.
 - 1.1 artikuluko i) letra edukirik gabe uzten du.
 - 1.1 artikuluko j) letra edukirik gabe uzten du.
 - V. eranskina bertan behera uzten du.
 - V ter eranskina aldatzen du.
 - VIII. eranskina bertan behera uzten du.
 - VIII bis eranskina bertan behera uzten du.
 - Bigarren xedapen gehigarrian jasota dauden epigrafeak eta epigrafe kodeak aldatzen ditu.

- *324/2019 Foru Agindua, ekainaren 25ekoa, Zerga Berezien Erregelamenduko 27., 101. eta 110. artikuluetan xedatutakoa garatzeko arauak onartzen dituen (2019/07/01ko GAO).*
 - Bere xedapen indargabetzaileak 9.1 artikuluko a) eta c) letrak indargabetu ditu.

- *5/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 22koa, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredu eta hura aurkezteko modua onartzen dituen (2020/01/27ko GAO).*
 - Bere xedapen indargabetzaile bakarrak 4. artikulua indargabetzen du.